


## Euskal AEko eraikuntza-kostuak %0,3 jaitsi ziren 2019ko urrian aurreko hilaren aldean

**Aurreko urtearen aldean %1,8 gehitu ziren kostuak**

2019ko urrian Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 gutxitu zen, aurreko hilaren aldean, eta hilabete horren urte arteko tasa %1,8 gehitu, EUSTATEN datuen arabera.

### Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostuan ez zen aldakuntzarik izan (%0,0) eta lehengaien kostua %0,4 jaitsi zen.

Etxegintzako lehengaien kostua %0,4 jaitsi da urrian; Obra Zibileko lehengaiena, %0,5. Urte artean, bi azpisektoreetan zeinu positiboak dira, zeren hala Etxegintzan nola Obra Zibilean %1,6 gehitu baitira lehengaien kostuak.

Sektoreak kontsumituriko lehengaietan urte artean (2019ko urria 2018koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak: *Energia elektrikoa eta gasa*, %22,5ekin; *Zurgintza*, %3,7rekin; eta *Industria ez-metalikoa*, %3,3rekin. Prezio-jaitsierarik handienak lehengaietan azken hamabi hiletan, aldiz: *Petrolioia fintzea*, %7,1eko jaitsierarekin; *Metalurgia*, %3,9koarekin; eta *Industria kimikoa*, %1,3ko murrizketarekin.

## EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Urria

|                  | INDIZEA      | ALDEAREN %  |            |            |
|------------------|--------------|-------------|------------|------------|
|                  |              | m/m-1       | m/m-12     | m/abendua  |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>105,4</b> | <b>-0,3</b> | <b>1,8</b> | <b>2,3</b> |
| Eraikinak        | 105,2        | -0,3        | 1,8        | 2,1        |
| Obra zibila      | 106,4        | -0,4        | 1,7        | 3,3        |
| <b>LEHENGAI</b>  | <b>105,1</b> | <b>-0,4</b> | <b>1,6</b> | <b>2,4</b> |
| Eraikinak        | 104,8        | -0,4        | 1,6        | 2,1        |
| Obra zibila      | 106,4        | -0,5        | 1,6        | 3,7        |
| <b>LAN-ESKUA</b> | <b>106,2</b> | <b>0,0</b>  | <b>2,3</b> | <b>2,3</b> |

Oinarria 2015=100  
(p) behin-behinekoa

**Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea**

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62